

Hernaniko DBHko ikasleek sagar eta sagardoaren kulturari hurbiltzeko aukera izan dute ikasturte honetan Artelatz ingurugiro zerbitzuak kooperatibaren eskutik. Helburuetako bat hain garrantzitsua den gai hau Hernanin eta eskualde osoan aztertzea da. Sagasti eta sagardotegi bat bisitatu dute jadanik eta haien asmoa herriko Txotx Egunean bertan ikasi zutena nolabait plazaratzea da.

Artelatz ingurugiro zerbitzuak kooperatiba duela 13 ikasturte ingurumen alorra garatzen ari da Hernaniko ikastetxeetan. Talde horren arduradunak ikasturte honetan, DBH1eko eta DBH2ko ikasleekin, sagar eta sagardoari buruzko gai berri bat lantzea proposatu zion Udalari. Horrek proposamena onartu zion eta ekimena gauzatzen ari dira.

Artelatzen gai honetaz arduratzen den Elixabet Gondaten iritziz, «oso interesgarria da gai hau Hernaniko ikastetxeetan aztertzea, sagarra eta sagardoa garrantzitsuak baitira eskualdean».

Programa honetako gaia sagarra eta sagardoa izanda, ikasleak ikuspegi globala aztertzen ari dira, hiru ardatzetan banatuta. Hasieran, kontzeptu guztiak bildu zituen Artelatzekek prestatutako ikas materiala aztertu zuten. Ikas-tunitate batekin eta power point batekin ikastalde bakoitzak bere gelan eta bere irakaslearekin landu zuen. Hainbat ikuspegiatik aztertu zuten: ikuspegi historikotik (jatorria, lehenengo aztarnak, bilakaera, dokumentuak), hizkuntza eta etnografiarenetik (topografiaren eta deituren azterketa, ogi-

bide batzuen aztarnak, tresneria, instalazioak), ikuspegi ekonomikotik (merkataritza, turismoa, ostalaritza), laborantzaarenetik (prozesuak, landaketa, inausketa, ongarritzea, sagar motak, gaixotasunak) eta kimikarenetik (sagardoaren ezaugarri kimikoak, prozesuak, heltzea, hartzidura, ozpina...), eta alkoholaren okerreko kontsumoaren prebentzioarekin

eta zibismoarekin zerikusia duen atalari eta, nola ez, ingurumeneko eraginari (hondakinak, paisaiako ondorioak, ekoizpen ekologikoa) erreparatu zieten.

Ondoren, ikastaldeen Ereñotzu auzoan dagoen Larre-Gain sagardotegi bisitatu zuten, gaur egungo prozesua eta antzinako dolarea ikusteko aukera ematen baita sagardotegi horretan. Larre-Gainen,

ikastetxean teorian ikasi zutena praktikan ikusi zuten (sagar garbiketa, dolarea, etab.) eta sagar muztioa egin berria -alkoholik gabea, beraz- dastatu ahal izan zuten.

Hurrengo pausoa ikasleek lan tailerra burutu zuten, eta horren barnean, sagastiaren zainketak (inausketak, etab.). Tailer hori Langile Ikastolak DBHko erakuntzan duen sagasti batean bu-

rutu zen eta udal lorazain Manu Iradiren gidaritzapean aritu ziren ikasleak.

Urtarrilean, txotx denboraldia hasiko den garaian, gaia jolasean amaitu nahi dute, herriko DBHko 1. zikloko eta DBHko 2. zikloko ikastaldeenekin. Ekintza hori zehazteke dago oraingoz, baina ardura-dunek argi dute ikasleek ikasi dutena kaleratzea merezi duela.



Ikasle talde bat Larre-gain sagardotegian sagardoa dastatzen.

J.M. Martínez

Sagarra eta sagardoa, eskolara

Hernaniko ia 300 ikasle edari naturalaren kulturara hurbildu dira

Artelatz ingurumen zerbitzu kooperatibarekin egindako elkarlanari esker

SAGARDOAN JAKITUNA BAZARA ALDEA NABARITUKO DUZU



GURUTZETA SAGARDOTEGIA,
BERRIKUNTZA ETA TRADIZIOA SAGARDO NATUREALEAN

Sagardo Natural Orekatua, lasto kolore eta fruitu zaporezkoa, edozein jakirentzat egokia.

Gurutzeta Sagardotegian egina, Oñahume Bidea, Astigarraga, Gipuzkoa.
Tel./Faxa: 943 55 22 42 • e-mail: gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com

